BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4662

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 12koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Hezkuntza Saileko Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurralde-ordezkariei eskumenak eskuordetzan emateari buruzkoa.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10.2.k) artikuluaren arabera, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari dagokio «kolektiboei dagozkien lizentziak eta baimenak ematea, onartutako akordio arautzaileek eta hitzarmen kolektiboek diotenari jarraituz».

Bestalde, artikulu horren hirugarren apartatuan honako hau adierazten da: «Aurreko apartatuan adierazitako gaietan, Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzak Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren mende egongo dira funtzionalki», eta aipatutako Dekretuaren 23.1.i) artikuluak Lurralde Ordezkaritzei berariaz esleitzen die honako eginkizun hau: «Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak, eskuordetze bidez, 10. artikuluko 2.k) apartatuan ezarri ez diren lizentziak eta baimenak ematea».

Eskumenen eskuordetzea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluan dago araututa, eta honako hau xedatzen du: «Administrazio publikoetako organoek beste organo batzuei delegatu diezazkiekete beren eskumenak, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta hierarkikoki bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden organismo publikoak edo zuzenbide publikoko entitateak badira».

Bada, gaur egun, ezinezkoa da Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak bere gain hartzea unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen kolektiboarentzat gaur egun dauden baimen eta lizentzia guztiak, dituen lan-karga eta giza baliabideak eta baliabide materialak direla-eta.

Hori dela eta, uste da zenbait baimen eta lizentzia emateko eskumena lurralde-ordezkaritzen esku uzteak, haien lurralde-eremuetan eta haien kargura dauden unibertsitatez kanpoko irakasle eta ez-irakasle funtzionarioetan, zuzendaritza honen zerbitzuaren kudeaketa hobetzen lagunduko duela. Kontuan izan behar da orain arte lurralde-ordezkaritzek izapidetzen zituztela baimen eta lizentzia jakin batzuk, eta, beraz, baimen eta lizentzia espezifiko horietarako beharrezko baliabide materialak, giza baliabideak eta esperientzia eta ezagutzak dituztela.

Hori dela eta, 71/2021 Dekretuaren eta 40/15 Legearen 9. artikuluaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

I.– Hezkuntza Saileko Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurralde-ordezkariei eskuordetzea, bakoitzak bere lurralde-eremuan eta unibertsitatez kanpoko beren ardurapeko irakasle eta ez-irakasle funtzionarioen eremuan, ondoren aipatzen ez diren baimenak eta lizentziak emateko eskumena:

1.– Gaixotasunagatiko lanaldia murrizteko baimena;

2.– Sindikatuen edo langileen ordezkari-lanak egiteko lizentzia;

3.– Genero-indarkeriagatiko lizentzia;

4.– Gaixotasun kronikoa edo mugikortasun-arazoak dituen senidea zaintzeko baimena;

5.– Lanpostuarekin edo laneko egitekoarekin zuzenean lotutako lanbide-hobekuntzako ikasketak egiteko baimena;

6.– Lanpostuarekin edo laneko egitekoekin zuzenean lotuta ez dauden ikasketak egiteko baimena;

7.– Hautetsi-karguen ondoriozko egitekoak betetzeko baimena (baimen horretarako murrizketa aplikatzeko aukera hartzen denean);

8.– Ordaindu gabeko baimena;

9.– Partzialki ordaindutako baimena.

II.– Eskuordetuz ematen diren administrazio-ebazpenetan berariaz adieraziko da inguruabar hori, eta organo eskuordetza-emaileak emandakotzat joko dira. Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari dagokio ebazpen horien aurka jar daitezkeen administrazio-errekurtsoez arduratzea.

III.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

IV.– Eskuordetze hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 12a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO.